

## **ABENDU ALDIKO 4. DOMEKEA – B**

### **CARITASEN JARDUNALDIA: «Soy porque compartimos / Partekatzera deituak»**

#### **Sarrerako oharra**

Anai-arrebok: Abendu aldiko laugarren domeka honetan, Maria Birjina Deikundearen pasarte ebanjeliko eder eta sakonaren bidez jatorku. Jaungoikoaren aukeraketa beti da grazia, doea, osotasuna.

«Partekatzera deituak». Horra hor Caritasek Jaunaren Jaiotzaren egunaren bezperako domeka honetan zabaldu gura dauan mezua. Konpromisorako deia da. Konprometitu ezker, munduak hobera egingo dau. Gaur arratsaldez hasita ospatuko dogun jai handi homek mundu barria, gizarte desbardintasun bako mundu barria amestera garoaz. Caritasek erakusten deuskun lez alkarbanatuz baino ez dogu lortuko.

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

#### **Sarrerako abestia**

#### **Abadearen agurra**

Jesukristo gure Jaunaren bakea, maitasuna eta itxaropena, zuekin.

#### **Abendu aldiko koroaren zeinua eta damu otoitza**

Abendu aldiko azken domeka honetan lau kandelok biztean, Maria Birjina dogu gogoan. Inork ez dau sekula berak besteko irrikaz, samurtasunez, maitasunez itxaron; inoiz ez zaitu inork berak besteko poztasunaz hartu. Geuk be holantxe, Maria Jesusen Ama eta gure Ama prestatu zan lez, prestatu gura dogu geure burua, zure eskutik datorren ezustekoa jasoteko prest. Zatoz bizkor, Jauna! Zatoz gu salbatzera!

*Laugarren kandela biztu.*

— Ilunpetan dabilzanei argi egitera datorren munduaren argia zarana: Erruki, Jauna.

— Herriari zuzentasunezko bideak zabaldu gura deusazuzan gizadiaren gidari zarana: Kristo, erruki.

— Gure makaltasunaren zauriak sendatzera datorren biziaren iturria zarana: Erruki, Jauna.

#### **Oharra 1. irakurgaiari**

Lehenengo irakurgaiko kontakizunaren arabera, Dabidek eleiza eregi gura deutso Jaungoikoari bere leinua sendotzeko. Baina Jaungoikoak egiten dau etxea erregearentzat eta bere herriarentzat.

#### **Oharra 2. irakurgaiari**

Bigarren irakurgaian, Paulo apostoluaren hausnarketa sakona aurkezten jaku: Ebanjelioa barri ona da gizadiarentzat.

#### **Jaungoikoaren herriaren otoitza**

Egin daigun bat otoitzean, Jaungoikoaren Semeak gizadi osoaren bidea barritu daian.

1. Maria bere itzalaz estali eban Espiritu Santuak adorea emon deion Eleizari, etsipena gainditu eta fede bizigarria ilusinoz zabaldu daian. Eskatu deiogun Jaunari.
2. Caritasek eta pobretasunaren aurka eta zuzentasunaren alde jarduten dabenek iraun daiela eskaintzan eta euren lekukotasuna bultzada izan daigula Gabon solidarioagoak bizitzeko. Eskatu deiogun Jaunari.
3. Herrietako agintariek gizaki guztiak bardin hartu daiezala duintasun eta eskubideetan, benetako batasunerantz joteko. Eskatu deiogun Jaunari.
4. Kristinau alkarte bakotxak eta kide guztiok Jaungoikoaren laguntzaile izan gaitzala behar-suen askapen eta sustapenerako eta euren gizarteratzerako. Eskatu deiogun Jaunari.

Zatoz, Jauna, eta poztu eizu atsekabetuen bihotza; emoiguzu indarra zure atzetik joan gura dogu-noi, argia ezagutzen ez zaituenei eta bihotz barria norberekerian itxita bizi diranei. Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldi guztietan.

### **Oharra dirua aurretik**

Caritasek ezinbestekoa dau diru-laguntza baztertuengana, azkenengana heldu ahal izateko. Gure konpromisoa zehazteko eta pobretasunari aurre egiteko konponbidean esku-hartzeko bideetako bat Caritaseko bazkide egitea da. Gaur batu daiten dirua Caritasen esku itziko da. Eskerrik asko alkartasunez jokatzegaitik.

### **Jaunartze osterako**

Eskerrik asko, Jesus Jauna, Gabonetan gagozalako,  
bihar Zu mundura sartu zineneko eguna ospatuko dogulako,  
Zu, Jaungoikoa izanda, gizon egin zinaneke gertaera handia,  
gu Jaungoikoaren seme eta alaba bihurtu ginanekoa.  
Truke zoragarria, benetan! Egundoko doe eta maitasuna!  
Ezin dogu presaka igaro Jaungoikoa-gugaz misterioa.  
Ezin gara harritu barik geratu hainbesteko edertasun eta handitasunaren aurrean!  
Jaitsi egin zara, behartsu eta apal egin zara, gu goratzeko.  
Lagundu eiguzu, Jauna, zure jaiotzaren misterioa egoki eta zuzen ospatzen.